



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

TXOSTENA: ARABAKO ERRIOXAKO MAHASTIEN ETA ARABAKO TXAKOLINAREN EGOERA, 2022/08/31

Arabako Errioxa

Joan den asteaz geroztik, udako lehen depresio askatu subtropikala ekaitzak eragiten ari da, baina ekaitz horiek ez dute utzi Arabako Errioxan dagoen ur eskasiaren egoera aldatzeko behar adina euririk. Hala ere, eroritako ur urriari eta abuztuaren 16tik aurrerako tenperatura baxuagoei esker, mahastiak freskatu egin dira eta beroagatik aurreratuta datorren heltze prozesua moteldu egin da.

Abuztu amaieran, mahastiak primeran jasaten ari dira udaberritik izan dituzten baldintza zailak: ohikoak ez diren erregistroak eragin dituzten ondoz ondoko bero boladak, eta ur kopuru urria, euri gutxi ekarri duten hainbat ekaitz irregularrek utzitakoa. Egungo fasea, azken heltze egunekin bat datorrena, aldi konplexua da; izan ere, muturreko ingurumen baldintza orok eragina du landarearen fisiologian eta metabolismoan eta, ondorioz, mahatsaren osagaien balioan eta orekan. Oraingoz, lehortea ez da nabaritu mahastien kanpoko itxuran, eta landare masa, oro har, egoera onean dago: ez dago agorriltzerik eta oinaldiko hostoak ez dira garaia baino lehen erori. Laboreak berez duen erresistentziaz gain, abuztuaren erdialdetik tenperatura arindu izanak lagundu du horretan, bai eta egunak laburtzen joateak eta azken ekaitzetan eroritako euriak ere, botatako ur kopurua txikia izan arren.

Iragarri genuen bezala, ureztatu ahal izan diren mahastiek hobeto jasan dute beroa, karga handiagoa izan arren. Ureztatutako mahastien zikloa lehorreko mahastiena baino aurreratuagoa zegoen uztailaren hasieratik, eta aurrerapen horrek bere horretan jarraitzen du. Ur gutxiago izan duten edo gazteak direlako sustraiak gainazaletik hurbilago dituzten lehorreko mahastien bilakaera moteldu egin da, eta gorabehera gehiago izan dituzte garapenean, udako ondoz ondoko bero kolpeetako tenperaturen arabera. Kalitate enologikorako egun erabakigarriak datoz oraindik, baina fruitu mamitzea doi gauzatzen ari zenez, luku eta ale kopuru txikiarekin, heltze prozesua arrakastaz amaitzeaz egon dadin lagundu du, lehorteak eragindako egoera kritikoa izan arren. Datei dagokienez, aurreko kanpainarekin eta Arabako Errioxan ohikoa denarekin alderatuta, egun batzuk aurreratuko da oraindik ere.

Mahastien osasun egoera aztertuta, gaur egun oso ona da, baina ez dago arriskutik kanpo. Bilketa egin aurreko egunak bereziki kritikoak dira, are gehiago aurten, udaberri eta uda amaierako muturreko meteorologiak fenomeno meteorologiko kaltegarriak eragin baititzake. Euri jasek edo harriteek arriskuan jar dezakete urteko lan guztia.

Mahats bilketarako aurreikus daitezkeen datei dagokienez, barietate zuri goiztiarrenak (tempranillo zuria eta kanpokoak) iraileko lehen egunetatik aurrera bilduko dira. Biura eta tempranillo beltza aurreko kanpainan baino gutxienez 10 egun lehenago bilduko dira. Horrela, baldintzak asko aldatzen ez badira, irailaren erdialdean hasi ahal izango dira bilketa egiten Arabako Errioxako barietate nagusietako mahastietako batzuetan, hain zuen ere, dituzten ezaugarriak direla-eta goiztiarragoak direnetan edo gaitasun enologikoa hobetzeko moduko mahatsa ez dutenetan.

Guardiako Ardo Etxean mahatsaren gainean egiten ari diren analisei dagokienez, ikusten da graduak bilakaera ona duela, baina azidotasuna, oro har, heltze etapa honetako ohiko zifren azpitik dago. Aromei eta polifenolei dagokienez (heltze fenolikoarekin lotutako faktoreak), datozen

egunetako meteorologiak baldintzatuko ditu balioak eta, ondorioz, uztaren kalitatea: tenperatura leunak, ur gehiegirik gabeko euriak eta gauaren eta egunaren arteko anplitude termikoak garapena nahi den modukoa izan dadin lagunduko lukete.

Arabako Errioxako uztaren bolumena aurreko kanpainakoa baino txikiagoa izango da ziurrenik, batez ere lehorreko mahastietan. Mahasti batzuk kargaturik badaude ere, gehienek luku gutxi dituzte, eta ale gutxiago eta tamaina txikikoak. Egoera aldatzen ez bada, aurten mahasti asko ez dira babestutako errendimendura iritsiko (% 95 barietate beltzen kasuan eta % 100 zuriaren kasuan). Kalitatea, a priori eta oro har, ona izango dela uste dugu, baina datozen egunetan gertatzen denak asko baldintzatuko du lehortearen eragina gehien jasan duten mahastiena.

Lehen esan bezala, Guardiako Ardoaren Etxeko Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua Arabako mahastien laginak hartzen ari da duela egun batzuetatik, heltze prozesuari buruzko urteko azterlana prestatzeko. Hurrengo egunetan argitaratuko ditu, eguneroko buletinetan, zehatz-mehatz eta garaiz, Arabako Errioxako udalerrri eta parajeentzat, mahats bilketa orokortzen den egunetara arte mahatsaren parametroen jarraipena egitea ahalbidetuko duten datuak. Analisisien emaitzetan, arreta berezia jarri beharko zaie azidototasunari, pH-ari eta karga polifenolikoari. Teknikariek eta nekazariak mahats bilketaren aurretiko eta berezko lanak antola ditzaten lagungarri izango dira parametro horien eta graduaren arteko oreka, mahatsaren osasun egoerari buruzko informazioa eta gero eta zehatzagoak diren eguraldi iragarpenak. Upeltegietako teknikariek beren mahastietan eta beren hornitzaileenetan mahatsa noiz bildu erabaki beharko dute hurrengo asteetan, lortu nahi dituzten ardoen profilararen arabera eta mahatsa mahatsondoan uzteak dakartzan arriskuen arabera.

Arabako Txakolina

Azken egunetako tenperatura apur bat freskoagoak eta abuztuko prezipitazio txikiak (15 edo 20 litro eskas) nahikoak izan dira mahastien zikloa bizkortzeko eta aleek normala izan ohi den tamaina hartzeko.

Gaur egun, mahastiek osasun egoera bikaina dute, eta luku ertainak, ez oso ugariak, eta ale solteak. Horri esker, hostoa ia osorik mantendu ahal izan da, lurzoru hareatsuagoetan kokatutako mahastietan izan ezik.

Fase fenologikoari dagokionez, heltze prozesuak behar bezala egiten du aurrera, azken urteetan ohikotzat hartzen diren datekin bat etorritik. Ez badago asaldura meteorologiko handirik (adibidez, zikloa atzeratzen duten euri ugari, edo zikloa aurreratzen duten tenperatura altuak), baliteke barietate goiztiarrenak, Riesling eta Chardonnay, irailaren erdialdetik aurrera biltzen hastea. Txakolin barietate nagusia, Ondarribi Zuri, ziur aski, ez da prest egongo astebete geroago arte.

Aiara Haraneko uztaren bolumenari eta ezaugarri kualitatiboari buruzko aurreikuspenei dagokienez, aurtengo kanpainak kalitate handia izango duela dirudi, baina ez da ugaria izango.

Guardia, 2022ko abuztuaren 31

MAHASTIZAINZA ETA ENOLOGIA ZERBITZUA

NEKAZARITZA SAILA